

# Zientzia eguneroko prentsan

Beñardo Kortabarría Olabarría

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

**laz bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko kioskoetan eskura daitezkeen egunkarien sei hilabeteko jarraipena egin du Elhuyar Fundazioak aurten ere. laz, ustekabeko emaitza irten zen azterketatik: zientzia eta teknologiaren tokia % 1 baino ez zen. Aurten, apur bat gora egin dute zenbakiek.**



E. CARTO

EGUNEROKO PRENTSAN AGERTZEN DIREN BERRI GUZTIEN % 2,42 zientzia-gaiei buruzkoak dira. Hori da Elhuyar Fundazioak, bigarren urtez jarraian, egin duen eguneroko prentsaren azterketaren ondorio nagusia. Horrela esanda, kopuruak ez dirudi oso handia, baina, aurreko urteko emaitzekiko aldea nabarmena da: berri-kopurua bikoiztu baino gehiago egin da.

Ikerketan, *Berría*, *Deia*, *Gara*, *El Diario Vasco*, *El Correo Español*, *Diario de Noticias de Alava* eta *El País* egunkariak erabili dira. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen diren guztiak, gehi *El País*. Espainiako egunkari

horrek badu nolabaiteko erreferentzialtasuna zientziaren dibulgazioan, eta horregatik erabili da azterketan. Iazko azaroan hasi eta aurtengo apirila arte, egunero begiratu, irakurri eta fitxatu dira zazpi egunkarietan argitaratu diren berriak, erreportajeak, elkarrizketak eta abar. Eguneroko gaiez gain, egunkarietako gehigarriak ere aztertu dira.

## Labelik gabeko lana

Horrelakoetan ohikotzat jo daitezkeen datuez haratago —argitaratze-data, izenburua, kazetaritza-formatua, izenpetua dagoen ala ez, gaia, iturrien aipamena...—, aurreko urteko azterketarekin alderatuta, bada nabarmendu daitezkeen alor bat: kalitatea. Hau da,

datu hotzak jasotzearekin batera, argitaratutako informazioa balioztatu nahi izan da. Ondorioa? Egunkariak badute zer hobetu zientziari buruzko informazioa emateko orduan.

Ondorio horretara iristeko, artikuluei hainbat parametroren arabera puntuazioa eman zaie, zenbateraino zuzen landuta dauden adierazteko. Edukien zuzentasuna balioztatu da, iturriak aipatzea, aipatzen diren iturri horiek fidagarriak diren edo ez, adituen iritzirik jasotzen den, beritik haratagoko informazio eskaintzen duen, azalpen grafikoak egokiak eta onak diren eta idazkera ere baloratu da, ea okerra, arrunta edo zuzena den. Horiek guztiak kontuan hartuta, 0 eta 9 artean,

kalkulatu da zuzen landutako artikuluen batek gutxienez 5,77ko puntuazioa lortu beharko lukeela.

Gutxieneko maila horretara pentsa daitekeen baino askoz artikuluen gutxiago iritsi dira: % 53 doi-doi; hau da, erdia baino gehixeago zuzenak izan dira, baina erdia baino gutxiago txarizat hartu behar dira.

Luzatzeagatik, informazioaren hartzailengana ere luza daiteke kritika, nahiz eta modu lausoagoan izan. Izan ere, egunkarien erosle diren neurrian, erosten dutenek kalitatezko produktuak kontsumitzeko eskubidea dute, eta, noski, eskubide hori eskatzekoa.

Hausnarketa edo kritika are eta urrunago eramatea ere badago, nahiz eta ez jakin noraino. Izan ere, gerta daiteke erosleak ez konturatzea jasotzen ari diren zientzia eta teknologiar buruzko informazioaren erdia kalitate gutxiak dela. Kasu horretan, arazoak larriagoa dirudi, gizarte honen hezkuntza-ereduei begira jarri beharra egongo litzateke eta.

### Edonor idazle

Kalitate-kontuak eta informazioaren jasotzaileak alde batera utzita, baina lotura hautsi gabe, informazioaren egileak ere hartu ditu kontuan azterketak. Horrek zerikusi handia izan dezake kalitatearen gaiarekin. Zientzia-dibulgatzailearen perfilik bada egunkarrietan? Zientzia eta teknologia gizarteratzen espezializatutako pertsonarik badago egunkarrietan? Galdera horiei erantzun nahi izan zaie. Azaroa eta apirila artean argitaratu diren 4.489 artikuluen fitxei erreparatu zaie.

*“artikuluen erdiak baino gehixeago zuzenak izan dira, baina erdiak baino gutxiago txarizat hartu behar dira”*




E. CARTON

Artikuluak nork sinatu dituen begiratu da, eta, ogibide hau dugunontzat, emaitza itxaropentsua: zientzia-kazetariaren figura ez da oraindik guztiz hedatu. Egunkari guztietan daude zientziak eta teknologiaz idazten duten pertsonak, baina ez dira iristen egunkarietara honi eskaintzen dizkieten orrialde guztiak betetzera. Horregatik, artikuluen asko eta asko espezializatorik ez duten kazetarien eskuetatik pasatzen dira.

Zientzia-dibulgazioaren beste atal batzuei ere erreparatu zaie azterketan. Adibidez, egunkari bakoitzak zientziari zenbat toki eskaintzen dion jakitea ere badago, eta portzentajeetan *Berria* da toki gehien ematen diona; *Deia*, berriz, gutxi ematen diona.

Euskararen presentziari ere begiratu zaio, eta, aurten, iaz baino txikiagoa du; % 20 aurten, % 38 iaz. Berez, euskaraz idatzitako artikuluen kopuruak gora egin du, baina zientziari eskaintako berri-kopuruaren gorakada handiagoa izan da. Bitxikeria bat ere bai: egunkari guztiek, *El País* barne, idatzi dute zerbait euskaraz zientziari buruz. Bat geratu da hutsean, sei hilabetean laburtxo bat ere ez euskaraz: nagusiki Bizkaian eta Araban saltzen den *El Correo Español*.



Goiko grafikoan ikusten da zientzia-gaiak albiste gisa landu direla kasuen ia erdietan. Beheko grafik, berriz, ondorioztatzen da egunkari guztiek iaz baino orrialde-portzentaje handiagoa eskaini diotela aurten zientziari.

